

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
ANDER PRADOS OTAMENDI
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
NEREA YEREGUI BALDA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko martxoaren 27an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-03-05KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2024-03-05 bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Enrique Martinez Cabanelas

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko martxoaren 13an, 13/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 6. Lursailean dagoen Bengoetxea etxean teila berritzeko eta ur hodia eraberritzeko.

2. Ufredo Mora

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko martxoaren 14an, 14/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hirigintza lizentzia ematea Beteluko Lakobeikoa 6, 3an, bi bainera kendu eta ur berogailua aldatzeko.

3. Administrazio elektronikora atxikimendua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko martxoaren 21ean, 15/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nafarroako Foru Komunitateko 20.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan administrazio elektronikoko tresnak ezartzea eta/edo hobetzeko proiektua garatzeko bi faseei Beteluko Udalaren atxikimendua adieraztea.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1.- Iker Aranburu Eusebio

Iker Aranburu Eusebiok ibilgaluaren baja dela eta 2024. urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren itzulketa proportzionala eskatu du.

6633-GFJ matrikula duen ibilgailua 2024ko martxoaren 1ean eman zen bajan

Hau ikusirik honakoa onartu da:

Urteko hiru hiruhilekori dagokion zati proportzionala itzultzea, hau da 47,04 euro.

Hau dena Nafarroako Toki Ogasuneko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 163.3. artikuluari jarraiki.

2.- Fatima Ennadafy

5681 FRL eta 0676DPR matrikuladun ibilgailuen baja dela eta, Fatima Ennadafyk 2024. Urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren itzulketa proportzionala eskatu du.

Aipatutako ibilgailuak ez daude Betelun altan

Hau ikusirik honakoa onartu du udalbatzak:

Eskatzaileari jakinaraztea Beteluko Udalak ezin diola inongo itzulketarik egin ez baitagokio udal honi trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarik ezartzea.

4. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO NAFARROAKO TOKI FUNTSARI URTE ANITZEKO ATXIKIMENDUA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak idatzia bidali du Garapenerako lankidetzako Nafarroako toki funtsari urte anitzeko atxikimenduari buruz.

Hau ikusirik udalbatzak ondokoa onartu du:

1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sortutako Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Toki Funtsean parte hartzea hainbat urtez.

2. 500,00 euro ematea, Beteluko Udalaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuetako 1 3380 4820000 partidaren kontura.

5. GARBIKETA LAGUNTZA KONTRATUA. KONTRATUAREN DEUSEZTAPENA ETA ESLEIPENA

2024ko otsailaren 27an egindako Beteluko Udalbatzaren osoko bilkuran Beteluko udal instalakuntzak eta eskola egoitzak garbitzeko lanetarako laguntza kontratua Zu eta biok S. Coop enpresari esleitu zion Beteluko Udalak,

Kontratua formalizatu aurretik baina, 2024ko martxoaren 22an Zu eta Biok Coopek idatzia aurkeztu zuen Beteluko Udalean kontratuari uko eginez

Hori dela eta, Kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.7 eta 161.5 artikulua eta klausula administratiboen pleguen 14. Klausula kontuan harturik, udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Zu eta biok S. Coopi esleitutako kontratua deuseztea.

BIGARRENA. Lizitazioan bigarren postuan gelditutako Pulen Limpieza y Mantenimiento de Infraestructuras SLri klausula administratiboen plegu partikularren 13. Klausulan agertzen den dokumentazioa eskatzea.

6.- 1/2024 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari ondorengo 1/2024 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua 1 4590 6350002 "Haur parkea berritu": 24.000,00 euro.

"Araxes eskualdeko eskola publikoan kirol instalakuntzak eta Haur eremua egokitzeko dirulaguntza" 1 7503001 sailarekin finantzatua: 24.000,00 euro.

2. Ezohiko kreditua 1 3420 6220001 "frontoiko zorua pulitu": 12.000,00 euro.

"Araxes eskualdeko eskola publikoan kirol instalakuntzak eta Haur eremua egokitzeko dirulaguntza" 1 7503001 sailarekin finantzatua: 6.000,00 euro.

"Gastu orokorretarako gerakina" 1 87000 sailarekin finantzatua: 6.000,00 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2024ko aurrekontuaren

exekuzio oinarrien 9. Oinarrien arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalez udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

7. FAKTUREN ONESPENA

CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	otsaileko garbiketak.	2.734,59
CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	otsaileko zakarrontzien bilketa.	123,42
CODISNA S.L	HIPOCLORITO EROSKETA.	279,51
ERASO OCHOTORENA, IÑAKI	Iraundiko aldapako argiteriaren konponketa.	2.583,35
ERASO OCHOTORENA, IÑAKI	amavir ondoko farola kopontzearena.	2.020,70
ERASO OCHOTORENA, IÑAKI	tabernako sukaldeko ekstrakotearen aldaketa.	3.286,36
F.E.M.P.	cuota villas termales 2024	400,00
GARCIA SATRUSTEGUI MAITE Y SATRUSTEGUI L	OTSAILEKO SORGINTXOKO BAZKARIAK.	698,10
GARCIA SATRUSTEGUI MAITE Y SATRUSTEGUI L	SOKATIRAKO NESKEN ONGI-ETORRIA.	160,99
GOIENER, S. COOP.	ESKOLAKO OTSAILEKO ARGIAREN KONTSUMOA	1.291,09
IBERDROLA CLIENTES SAU	argiztapen publikoa 2023-11-30 2024-02-29	1.535,22
IBERDROLA CLIENTES SAU	udaleko pisua c/ mayor 7-2 izda 2024-01-30 2024-02-29	8,93
IBERDROLA CLIENTES SAU		6,11
IBERDROLA CLIENTES SAU	ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2024-01-31 2024-02-29	178,78
IDM LIFE SAVING EQUIPMENT CORPORACION IBERICA SLU	desfibriladorearen otsaileko mantenua.	128,84
IRUÑA MANTENIMIENTOS TÉCNICOS, S.L.U.	2024ko mantenimentua.	1.408,16
IRUÑA MANTENIMIENTOS TÉCNICOS, S.L.U.	eskolan berogailu gabe geratu zireneko konponketa.	313,05
OFICO	MARTXOKO LANAK.	135,42
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	Indianoetxeko kanaloia konpondu.	181,50
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	zuhaitzak muarratu eta zotzak eraman.	635,25
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	etxetxo ondoko ur jarioaren konponketa.	641,91
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	otsaileko deposituaren mantenua.	121,00
OTAMENDI ARTOLA, LORENZO	otsaileko larunbateko bidaiak.	127,70

Leitzako Udala	2023ko red nels	62,95
Amazon	Repetidor de red wifi	24,99

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuen inguruko akordioak sartzeko eskatu du: "1-36 eta 1-37 lursailen errentamendu kontratua".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Beharrezkoa da eremu hori zaborrontzien kokapena lehenbailehen egiteko.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guziten aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

8. 1-36 ETA 1-37 LURSAILEN ERRENTAMENDU KONTRATUA

Antonio Arricibita Ansorena usufuktuduna den 1. Poligonoko 36. Eta 37. lursailletako higiezina errentan hartzeko asmoa du Beteluko Udalak, zaborrontziak bertan kokatzeko.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez ondokoa

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Antonio Arricibita Ansorena jauna usufuktudun den 1-36 eta 37 lursailletako higiezinaren errentamendua onartzea, urteko 1.200 euroko prezioan. Kontratua mugagabea izanen da, eta kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da ondorioak izaten.

BIGARRENA.- Antonio Arricibita Ansorena jaunari, kontratuaren esleipendun den aldetik, erabaki hau jakinaraztea,

HIRUGARRENA.- Kontratuaren guztizko gastua konprometitzea, 1 9200 20000 "taberna ondoko lursailaren alkilerra" partidaren kontura (edo etorkizuneko aurrekontuetako partida baliokideen kontura), aurrekontu horiek behar besteko diruzendapenarekin onartzearen baldintzapean.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.